

Ikaskuntza aktiboan oinarritutako eredu baten aplikazioa marketin arloan

*Virginia Rincón Díez
Unai Tamayo Orbeogo*

Finantza Ekonomia II (Enpresa Ekonomia eta Merkaturatzea) Saila
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

DOI: 10.1387/tantak.17863

GAKO-HITZAK: Ikaskuntza aktiboa, Diziplina anitzeko ikaskuntza, Goi mailako hezkuntza, Marketin arloa.

SARRERA

Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren eraketaren ondorioz hezkuntza unibertsitarioaren orientazioan aldaketak gertatu dira, besteak beste, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua ulertzeko erari eragiten diotenak. Ikuspegi berri honen arabera, ikaskuntza ez da soilik ikasleek ezagupenak jasotzeko eta metatzeko prozesua. Ikaskuntza gaitasunak eskuratzeko helburua kontuan izanda definitzen da eta irakasleen zeregin nagusia bideratzea, aholkatzea, orientatzea, ebaluatzea, laguntzea eta, azken finean, ikasten irakastea da. Zentzu honetan, ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren benetako eragilea da eta ez hartzaile pasibo bat eta, beraz, irakaskuntza prozesua bere osagarria den ikaskuntzarekin batera adierazita egon behar du.

Gaur egun, oinarritzkoa da estrategia metodologikoak ikasleen ikaskuntza behar berrietara moldatu daitezen. Ildo honetan, ikasleengan arreta jartzten duten irakaskuntza metodoek ikaskuntza sakonago eta iraunkorrago bat sortzen dute eta ingurune heterogeneoagoetara egokitzea errazten dute (Fernández March, 2006). Ikasleen ikaskuntza autonomia bultzatzen saiatzen diren metodoen artean kasuen azterketa, arazoetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa edo ikaskuntza kontratua nabarmendu daitezke. Testuinguru faktore ezberdinek, hala nola, ikasle kopuruak, ikasleen ezaugarriek, ikasgaiak edo ikaskuntza helburuek metodo bat edo bestearen egokitasuna baldintzatzen dute.

Marketinaren irakaskuntzaren esparruan, Camarero, Rodríguez-Pinto eta San José-ren (2007) iritziz, esperientzian oinarritutako ikaskuntzaren

abantaila nagusietako bat ikasleak beraien ikaskuntza prozesuan inplikatu daitezzen bultzatzen duela da. Era berean, González-Gascón, De Juan, Parra, Sarabia eta Kanther (2010) egileek proiektu bideragarrien garapena aipatzen dute marketinaren irakaskuntzaren testuinguruan norberak araututako ikaskuntza sustatzeko metodo bezala. Bestalde, Blanquek eta Odriozolak (2010) negozio simulazio programen erabilpena planteatzen dute marketinaren ikaskuntzarako. Halaber, Sevillanok (2011) marketin arloari loturiko gaitasunen eskuraketarako proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren erabilgarritasuna nabarmentzen du.

Artikulu honetan marketin esparruan erabili ahal izateko ikaskuntza eredu bat planteatuko dugu. Eredu honen ardatz nagusia Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) da. Metodologia honen bidez prestakuntza jarduera guztiak ikasleek gauzatzen duten proiektu baten inguruan antolatzen dira. Proiektua burutzeak eginkizun ezberdinak inplikatzeko, besteak beste, ikaskuntza helburuak ondorioztatzea, proiektuaren garapena planifikatzea, aukera ezberdinen bideragarritasuna aztertzea edo lan taldearen funtzionamendua ebaluatzea. Irakaskuntza-ikasuntza metodo honek ikasleak bere ikaskuntza prozesuan modu aktiboan parte hartu dezan eta baita irakaslearen jarraipen aktiboa ere eskatzen du.

Proposatuko dugun ikaskuntza aktiboko ereduak ikasleek marketin arloko irakasgai ezberdinen eduki eta gaitasunak modu koordinatuan landu ahal izango dituzte proiektu berdinen inguruan. Eredu honek irakasgai ezberdinetako edukiak modu bateratuan egituratzeko eta enpresa errealtatera hurbiltzeko aukera eskaintzen du. Modu honetan, posible egiten du marketin jarduera ezberdinen arteko elkarmenpekotasuna onartzen duen marketinaren ikuspegi zabal eta integratu bat ematea. Honelako ereduak irakasgaien ikaskuntza sakonago bat eta irakasgai ezberdinen arteko elkarrekiko erlazioari buruzko kontzientzia handiago bat ematen dutela uste dugu.

Hurrengo atalean Euskal Herriko Unibertsitateko Marketineko graduan erabili dugun ikaskuntza aktiboko ereduaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu. Ondoren, ereduaren diseinua eta inplementazioa azalduko ditugu. Ikasleek eredu berriari buruz dituzten pertzepzioak jasotzen dituen atal bat ere erantsi dugu. Azkeneko atalak lanaren ondorio nagusiak aurkeztzen ditu.

IKASKUNTZA AKTIBOA MARKETIN ARLOAN

POI mundu errealeko edo praktika profesionaleko egoera bat abiapuntutzat hartzen duen irakaskuntza metodologia bat da. Hasierako egoera horretatik abiatuz ikasleek ikaskuntza beharrak identifikatzen dituzte, beharrezko informazioa bilatzen dute eta proiektuaren garapenerako edukiak integratzen dituzte.

Metodologia berri hau Ikaskuntza Kooperatiboan oinarritzen da. Ikaskuntza Kooperatiboak estrategia didaktikoen multzo bat jasotzen du non ikasleek talde txikietan lan egiten duten eta hauen ebaluazioa taldearen emaitzen menpe dagoen. Ikasleek beraien ikaskuntzaren eta beraien ikaskideen ikaskuntzaren ardura hartzen dute eta modu koordinatuan lan egiten dute taldearen helburuak eta pizgarriak lortzeko. Ikaskuntza Kooperatiboak taldeko ikasleen helburuak loturik daudela inplikatzeko du eta ikasle bakoitzak bere helburuak besteek beraienak lortzen badituzte bakarrik lor ditzake. Rogerek eta Johnsonek (1994) metodologia kooperatiboaren eraginkortasunaren oinarri bezala, besteak beste, elkarmenpekotasun positiboa identifikatzen dute.

Lan honetan Marketineko graduko bi irakasgaien edukiak modu bateratuan garatzeko ikaskuntza aktiboko eredu bat planteatuko dugu. Ereduaren ardatzak POI da eta irakasgaiak Merkataritza Banaketa (MB) eta Produktu eta Prezio Erabakiak (PPE). MB irakasgaiak enpresaren banaketa politikarekin lotutako edukiak garatzen ditu eta PPE irakasgaiak produktu eta prezio politikarekin lotutakoak. Kasu honetan ikasleei aurkezten zaien abiapuntua hobby batean oinarrituz haien negozioa garatzekoa da. Beraz, proiektuaren oinarria negozio ideia bat bideragarritasun komertziala duen produktu erakargarri batean bihurtzea da. Zehazki, ikasleek produktu eta banaketa politikak modu koordinatuan definitu beharko dituzte, planteatutako enpresa proiektuaren esparruan.

Ikaskuntza eredu berri honen diseinua martxan jarri aurretik, hausnarketan prozesu bat burutu genuen. Hasiera batean, zentzuzkoa eta aberasgarria zirudien marketin arloko bi irakasgaitan proiektu bat modu bateratuan martxan jartzea. Marketin kudeaketak hainbat jarduera, hala nola, produktu, prezio, banaketa eta komunikazio politikarekin lotutakoak, modu bateratuan kontuan har daitezkeen eskatzen du. Proiektuan inplikaturako irakasgaiek, MB eta PPE, bi irakasgai ezberdin izanda ere, modu koordinatu eta koherentean hartu beharreko erabakiak jasotzen dituzte. Zentzu honetan, planteatutako berrikuntza oso onuragarria izan zitekeela iruditu zitzaizgun.

Proiektu honetan inplikaturako irakasleok bagenuen aurretiko esperientzia metodologia aktiboetan eta motibazioa altua zen, baina metodologia horien aplikazioa sistematizatzeko ezagupen teknikoaren falta genuen. Hori dela eta, 2012/2013 eta 2013/2014 ikasturteetan, Euskal Herriko Unibertsitateak irakasleak metodologia aktiboetan trebatzeko antolatzen duen ERAGIN izeneko programan parte hartu genuen. Programa honek hiru modalitate eskaintzen ditu (arazoetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza eta kasuen analisiaren metodoa) eta unibertsitatean metodologia aktiboak zabaltzeko helburua du (Madinabeitia eta Fernandez-Fernandez, 2015).

Lehenengo eta behin, 2012/2013 ikasturtean, ikaskuntza eredu berria diseinatu genuen eta ondoren, 2013/2014 ikasturtean, diseinatutako eredu

klasean implementatu genuen. Honek burututako diseinua errealista zela egiaztatzeko aukera eman zigun, programatutakoa modu nahiko zehatzean gauzatzea posiblea izan baitzen.

Hala ere, talde eta irakasle bakoitzaren esperientzia bakarra izan zen, irakaskuntza testuinguru bakoitzean egokitzapenak ere egin behar izan baitzen. Implementazioa bukatzean burututako txostenek neurri zuzentzaileak proposatzeko eta hasierako diseinua hobetzeko aukera eman ziguten. Bai ereduaren diseinuan zehar, bai implementazioan zehar, prestakuntza programari loturiko tutore baten laguntza izan genuen. Tutoreak prozesu osoan zehar gidatu gintuen. Hasierako diseinu etapan, bere iradokizunekin, eta implementazioa bukatu arte, ibilbide osoan zehar, bere laguntza eskatu genuen guztietan lagundu gintuen.

DISEINUA

Hainbat egilek metodologia aktiboen abantailak gorai patzen dituzte (Panitz, 2004; Benito eta Cruz, 2005; Apodaca, 2006; Prieto, 2007; Vidic, 2010; Díaz-Véliz et al., 2011; Aliri, Lertxundi, Gorostiaga, Vozmediano, eta Vergara, 2016). Hala ere, abantaila horiek lortu ahal izateko funtsezkoa da ikaskuntza prozesuaren plangintza egoki bat burutzea. Hurrengo paragrafoetan gure ereduaren formulazio orokorra aurkeztuko dugu.

Lehenik eta behin, abiapuntutzat hartu genituen galdera eragilea eta hasierako egoera aurkeztuko ditugu. Era berean, ikasleak proiektuaren garapenean orientatzeko, proposatu genituen hainbat gida-galdera aipatuko ditugu. Galdera eragileari dagokionez, garrantzitsua da esatea erakargarria eta neurri batean probokatzaila izan behar duela. Hasiera batean planteatu genituen galderak, egokiak ziren arren, akademikoegiak ziren eta ez zuten behar bezalako eragina sortzen. Tutorearen iradokizunei esker eta negozioen etikari buruzko eztabaida piztu zezakeela kontuan izanda, hasierako egoerarekin batera aurkezten dugun, ondoko galdera eragilea proposatzen ausartu ginen.

GALDERA ERAGILEA

GURE HOBBYAREKIN ABERASTUKO GARA?

HASIERAKO EGOERA

2016KO IRAILA. Graduko ikasketak bukatu, zuen negozioa antolatzeko aukera planteatzen zaizue, zuen hobyan oinarrituz zuen ibilbide profesionala eginez. Bi bazkide kapitalista negozioa errealitate bihurtzeko baliabide finantzarioak jartzeko prest daude, baina ideia merkataritza ikuspuntu batetik garatu beharra dago.

Ikasleak proiektua burutzerakoan orientatzeko asmoz jarraian aurkezten ditugun zenbait galdera planteatu genituen.

Gida-galderak

Hobby batean oinarritutako «negozio ideia» bat duzue zuen eskuetan. Zer jakin behar duzue ideia hori merkataritza produktu batean bihurtzeko eta xede-merkatuari zuzendutako merkaturaketa zehazteko? Zer jakin behar duzue produktua forma, leku, momentu eta kantitate egokian xede-merkatuarentzako eskuragarri egon dadin lortzeko?

Abiapuntua definitu ondoren, ikasleek proiektua garatzeko eta ikaskuntza helburuak lortzeko burutu beharreko jardueren multzoa diseinatu genuen. Jarduera guztiak ikuspegi kooperatiboak ikasleen ikaskuntza prozesuan duen garrantzia kontuan izanda diseinatu genituen. Zentzu honetan, Kaganek (1994) ikasleen arteko elkarreagin kooperatiboa ikaskuntza prozesuaren oinarria dela adierazten du. Halaber, Zabalondo, Fernandez-Guerra, Alonso eta Pagadigorria (2016) autoreek ikasleek mundu profesionalean lankidetzan aritu beharko dutela adierazten dute, eta beraz, unibertsitateko ikasleak ikaskuntza kooperatiboan trebatzea funtsezkoa dela azpimarratzen dute.

Proiektuarekin lotutako jarduerak hiru multzotan sailka daitezke, proiektuaren fase ezberdinei dagozkienak. Lehengo jarduera taldea proiektuaren diseinu fasearekin loturik dago, bigarren taldea garapen fasearekin eta hirugarren taldea proiektuaren itxiera fasearekin. Diseinu eta itxiera faseei dagozkien jarduerak MB eta PPE irakasgaietan modu bateratuan garatzen dira eta garapen faseari dagozkion jarduerak, ordea, irakasgai bakoitzean modu independentean planteatzen dira.

Diseinu faserako hobbyen hurbiltasunaren arabera lan taldeak eratzeko eta proiektuak definitzeko jarduerak proposatu genituen. Halaber, hasierako fase honetan, ikasleek ikaskuntza beharrak ondoriozta ditzaten zenbait ekintza proposatu genuen. Proiektuaren garapen faserako, ordea, inplikaturako irakasgai bakoitzaren ikaskuntza helburu espezifikoekin lotutako jarduerak diseinatu genituen. Azkenik, itxiera faserako garapen fasean banaturik landutako kontzeptu eta jarduera ezberdinak dokumentu berean bateratzeko hainbat ekintza planteatu genuen. Azken fase honetan ikasleek Azken Txostena deituriko dokumentuan haien negozioaren marketin politikak zehaztu beharko dituzte ekintza ezberdinen arteko koherentzia eta osagarritasuna justifikatuz.

Proiektuan inplikaturako bi irakasgaien plangintza planteatu ondoren, metodologia aktiboetan trebatzeko ERAGIN programaren arduradunek proposatuta, programan parte hartzen zeuden beste irakasle batzuen proiektuaren ebaluazioa egin genuen. Era berean, haiek ere gurea aztertu

zuten. Beste proposamen bat ebaluatu ahal izateak eta gure proposamena ebaluatu zuten irakasleengandik iradokizunak jasotzeak gure proiektua hobetzeko baliagarriak izan ziren ideiak biltzeko aukera eman ziguten.

Diseinu prozesuan zehar aurkitu genituen zailtasunen artean, galdera eragilea edo hasierako egoera bezalako terminoei buruzko zalantza kontzeptualekin lotutakoak aipa daitezke. Halaber, galdera eragilearen proposamenari buruzko akordio batera iristea ez zen zeregin erraza izan. Eztabaida luzea izan zen, hasiera batean hain informala zen galdera bat planteatzeak kezka sortzen baitzigun. Azkenik, probokatzailea izan zitekeela eta enpresa munduko etikari buruzko eztabaida estimula zezakeela pentsatu genuen eta barneratzea erabaki genuen.

INPLEMENTAZIOA

Eredu berriaren inplementazioak Marketineko graduko bigarren mailako PPE eta MB irakasgaietako gaztelania eta euskara taldeen arteko koordinazioa eskatu zuen. Irakasgai bakoitza 6 kreditutakoa da eta saio guztiak, irakaskuntza modalitatea edozein izanda ere, ordu eta erdikoak dira eta, ondorioz, elkar trukatzeko errazak.

Ikasleen banaketari dagokionez, gaztelania taldean, PPE irakasgaien matrikulatutako ikasle kopurua 41 izan zen eta MB irakasgaien 50. Euskara taldean, PPE irakasgaien 14 ikasle egon ziren eta MB irakasgaien, taldeen arteko fusioaren ondorioz, Marketineko graduko 15 ikasle egon ziren eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduko hirugarren mailako 22 ikasle. Beraz, irakasgai batean matrikulaturik zeuden baina bestean matrikulaturik ez zeuden ikasleak izan genituen. Jarraian agertzen den 1 Taulan ereduaren inplementazio testuingurua aurkezten dugu laburki.

1. taula
Inplementazioan inplikaturako irakasgaiak

Irakasgaia	Gaztelania	Euskara
Produktu eta Prezio Erabakiak (PPE)	talde 1 41 ikasle (Marketineko 2. maila)	talde 1 14 ikasle (Marketineko 2. maila)
Merkataritza Banaketa (MB)	talde 1 50 ikasle (Marketineko 2. maila)	fusionaturako talde 1 15 ikasle (Marketineko 2. maila) 22 ikasle (EAZko 3. maila)

Ikaskuntza eredu berriaren gauzatzea 2014ko urtarrilean hasi zen eta 2014ko maiatzean, Azken Txostenaren entrega eta balorazioarekin, bukatu zen. Inplementazioa, hizkuntza bakoitzean, ikasle kopururik handiena zeukan taldean hasi genuen. Lehenik, ikaskuntza eredu berriaren aurkezpena egin genuen, bi irakasgaien testuinguruan kokatuz, metodologia eta ebaluazio sistema deskribatuz eta proiektuen garapenerako abiapuntua eskainiko zuten galdera eragilearen eta hasierako egoeraren planteamendua eginenez. Ikaslearen gida eta lauhilekoan zehar, bai klasean, bai klasetik kanpo, burutu beharreko jarduera guztiak zehatz-mehatz jasotzen zituen egutegia ez genituen klaseko bigarren astearen amaiera arte entregatu, behin taldeak eraturik eta proiektuak bideraturik zeudenean. Taldeak hobbyen hurbiltasunaren arabera eratu ziren 3 eta 5 ikasle arteko taiminarekin. Ahal izan genuen guztietan, metodologia aktiboen aplikazioan oso erabilgarriak diren talde txikietan lan egiteko gelak erabili genituen.

Klase ordutegiek irakasgai bakoitzean burutu beharreko diseinu eta itxiera jardueren banaketa baldintzatu zuten, jarduera hauek modu sekuentzialean garatzeko diseinaturik baitzeuden. Ikasle kopuruari dago-kionez bi irakasgaien artean zegoen desfasea ere kontuan hartu behar izan genuen diseinu eta itxiera jarduerak banatzerako orduan. Klase ordutegiek proiektuaren garapen faseari dagozkion jardueretan, ordea, ez zuten eraginik izan, jarduera hauek irakasgai bakoitzaren testuinguruan planteatu baitziren.

Ikaskuntza eredu berriaren abiaraztean, ikasleen talde-lana modu eraginkorrean antolatu eta ikasleen parte hartze aktiboa proiektuan sustatzeko beharrezkoa izan zen inplikaturako irakasleok neurriak hartzea, batez ere, inplementazioaren hasierako faseetan. Zentzu honetan, eta bi irakasgaien helburuak loturik daudela kontuan izanda, beharrezkoa izan zen malgutasunez jokatzeko.

Galdera eragilearen aurkezpenarekin, negozioen etikari buruzko eztabaida bat irekiz hasi ginen, ikasleei ikuspegi ekonomiko batetik errentagarriak izan daitezkeen, baina, aldi berean, erantzukizun sozialeko elementuak errespetatu eta barneratzen dituzten proiektuetan parte hartzeko erronka planteatuz.

Inplementazioaren hasieran taldeen eraketan eta metodologiaren azalpenean jarri genuen arreta. Ikasleek jarraitu beharreko ebaluazio sistema berriari buruz ahalik eta ideiarik errealean izan zezaten zen helburua. Abiarazte fasean ikasleek hautemandako lehenengo sentsazioak kontraesankorrrak gertatu ziren. Alde batetik, nahasturik zeuden, baina, beste alde batetik, proiektuaren planteamendua eta jarraitu beharreko metodologiak konbentzitu zituen. Lehenengo astean zehar proiektuan inplikaturako irakaslearen arteko koordinazioa ezinbestekoa izan zen lan taldeen eraketan aurreratu ahal izateko.

Ikasleek haien hobbyetan oinarritutako negozio ideia batetik abiatuz produktuaren merkataritza garapenarekin eta ondorengo merkaturaketare-

kin loturiko galderentzako erantzunak aurkitu behar izan zituzten. Proiektuaren garapenean zehar identifikatuz joan ziren aukera ezberdinen artean erabaki behar izan zuten, honela, proiektuan aurrera eginez. Astez aste, ikasleak proposamenak egiten eta erantzunak ematen joan ziren neurrian, proiektuak edukiz eta nortasunez jabetuz joan ziren.

Hasieran nolabaiteko nahasketa sentsazioa egon zen arren, irakasleok planteatutako asteroko eta eguneroko antolaketa sistema interesgarria izan zen ikasleentzat eta, modu informalean, adierazi zuten, behin erritmoa hartzen zaionean, honela gehiago ikasten dela. Baieztapen hau, geroago, datu objektiboagoekin berretsi ahal izan genuen. Ikasurteak aurrera joan ahala, ikasleen inplikazioa areagotzen joan zen eta lanari modu sistematizatu, koordinatu eta antolatuan heltzen zioten. Bai ikasleek eta baita metodologia aktiboetan trebatzeko ERAGIN programako tutoreak ere, klasean egindako bisitaren ondoren, iritzi hori transmititu ziguten. Zehazki, tutoreak esperientzia modu oso egokian garatzen zegoela adierazi zigun, irakaskuntza-ikasuntza eredu berean talde eta irakasgai ezberdinak koordinatzeak ekar ditzakeen ahaltasunak kontuan izanda.

Ikasle gehienak klase guztietara etorri ziren eta haien parte hartzea erabatekoa izan zen. Hala ere, asteak aurrera joan ahala, klasean egindako behaketa soilarekin, erraza zen nabaritzea talde ezberdinetan lan erritmoak, proiektuarekiko konpromisoa eta, ondorioz, lortzen zituzten emaitzak ezberdinak zirela. Metodologia berriak freskura eta malgutasuna eskaintzen zuen arren, batzuetan, zaila suertatzen zitzaigun proposamen berberekin talde ezberdinak gidatzea. Zentzu honetan, egokia iruditu zitzaigun hasierako plangintzan aurreikusita ez zeuden zenbait jarduera barneratzea. Beterie, barneratutako aldaketak irakasle eta ikasleen artean adostuak izan ziren. Klasean burututako behaketa eta komunikazio zuzenaren bidez hautemandakoaren arabera, egindako aldaketak positiboak gertatu ziren proiektuaren garapenerako.

Ebaluazioari dagokionez, ikasleek zenbait proba egin behar izan zituzten eta planifikatutako jarduera ezberdinekin loturiko hainbat entregatzeko eta fitxa burutu behar izan zituzten. Lehenago esan dugunez, diseinu eta itxiera faseetako jarduerak bi irakasgaietan komunak izan ziren eta garapen faseko jarduerak irakasgai bakoitzean modu independentean burutu ziren. Kasu guztietan eta talde guztietan entregatzekoen eta fitxen emate epeak errespetatu ziren, bai bi irakasgaietan komunak zirenak, bai irakasgai bakoitzarentzat espezifikoak zirenak. Proiektuaren Azken Txostenaren ematea ere talde guztietan ezarritako epeen arabera burutu zen.

Lauhilekoan zehar jaso eta ebaluatu genituen jarduera ezberdinei loturiko entregatzekoak eta fitxak erabilgarriak izan ziren ikasleak Azken Txostenaren edukien osaketan orientatzeko. Honela, klaseak, ikasleak jardueraren batean lan egiten zeuden bitartean, proiektuei buruzko balorazioak, iradokizunak eta gomendioak egiteko erabili genituen, azken erabakia, dena den, taldeen esku uzten genuelarik. Aldizka, posta elektronikoa

ere erabiltzen genuen talde bakoitzean izendatutako ordezkariarekin zuzenean komunikatzeko.

Prozesu guztian zehar, ikasleek burututako lanari buruzko atzera elikadura funtsezkoa izan zen proiektuaren garapenean hobekuntza estimulatzen eta modu okerrean interpretatutako zenbait kontzeptu ulertzen laguntzeko. Tenaren (2010) arabera, ebaluazioak feedback egokia eskaini behar du ikasleek beren eboluzioari buruz kontzientzia har dezaten eta hobetzeko beharrezkoak diren ekintzak inplementatu ahal izateko.

Proiektuaren itxiera faseari dagokion ko-ebaluazio jardura MB irakasgaiaren burutu genuen ikasle eta lan talde kopururik handiena biltzen zuena baitzen. Bestalde, produktu eta banaketa politikei dagokienez Azken Txostenak izan behar zuen koherentzia bi irakasgaietako irakasleok ebaluatu genuen eta ikasleei feedback zehatza eman genien Azken Txostenaren ebaluazio fitxen bitartez.

Azkenik, zenbait taldek beren proiektua aurkeztu zuten klasean. Gainerako taldeek irakasleok proposatutako beren proiektuaren gai zehatz bati buruzko ikus-entzunezko aurkezpena egiteko aukera izan zuten. Bai klasean egindako aurkezpenak bai ikus-entzunezkoak maila oso onekoak izan ziren.

Ikaskuntza klasean bideratutako baina klasetik kanpo ere hedatu zen prozesu jarraitua izan zen. Lan egiteko modua irakasleok zuzendu genuen arren denbora guztian autonomia izan zen. Prozesu osoan zehar, ikaskuntza indibidualak taldeko lanean eragina izan zuen, bakoitzak ikasitakoa taldearen eskura jarriz. Beraz, lan egiteko moduan beti nagusitu izan zen ikasleen inplikazio indibidualean eta ikasleek taldearentzat egindako ekarpen indibidualean oinarritutako ikaskuntza kolektiboa.

Unibertsitateko plataforma birtualaren erabilpena funtsezkoa izan zen proiektuaren garapen egokirako eta, klaseko saioekin batera, antolatzen, edukiak jasotzeko eta gogorarazteko funtzioak bete zituen.

Taldean jarrerari dagokionez, lan egiteko modua gehienetan arduratsua eta zorrotza izan zen baina, aldi berean, lasaia eta atsegina. Lanarekiko jarrera eta ikasleen arteko harreman ona Azken Txostenetan ere gauzatu egin zen. Horrez gain, proiektuak talde bakoitzeko ikasleen arteko harremanak hobetzeko balio izan zuen.

Lan giroa eta ikasleen lan metodologiarekiko jarrera oso positiboak izan ziren. Noizbait, ikasle eta irakaslearen arteko nolabaiteko hurbiltasun sententzioak «gehiegizko lasaitasun» jarrera bat sortu ahal izan zuen arren, hau taldearen inertzia positiboaren bidez eta gaitasun indibiduala jasotzen zuen proba indibidual baten bidez ere zuzendua izan zen.

Orokorrean, emaitzek ikaskuntza hobe bat garatu zela jartzen dute agerian. Ikasleen gehiengoak, ikasturtean zehar izandako inplikazio altuari esker, irakasgaia lehengo deialdian gaingitu zuen. Azken kalifikazioari dagokionez, emaitzak altuak izan zirela eta aurreko ikasturteetako emaitzekin alderatuz hobekuntza adierazgarri bat egon zela adierazi beharra dago.

IKASLEEN PERTZEPZIOAK

Lan honetan planteatu dugun ikaskuntza aktiboko ereduaren balorazioa osatu ahal izateko, inplementazioa bukatzean, ikasleei lan egiteko modu berriari buruz galdetu genien. Zentzu honetan, Alirik, Lertxundik, Gorostiagak, Vozmedianok, eta Vergarak (2016) ikasleek erabilitako metodologia berrien inguruan dituzten iritziak jasotzea interesgarria izan daitekeela diote. Zehazki, metodologia berriei esker ikasleek garatu dituzten gaitasunei buruz galdetzeak metodologia berri hauen ebaluazio integrala egitea ahalbidetu dezakeela adierazten dute.

Atal honetan ikaskuntza eredu berriaren aurrean ikasleen pertzepzioak nolakoak diren adierazten saiatuko gara. Ikasleei esperientzia berriaren balorazio globala egin zezaten eta metodologia tradizionalekin alderatuz haien iritzia eman zezaten eskatu genien. Horrez gain, metodologia berria gaitasun zehatzak garatzeko zein neurritan izan zen lagungarria ere galdetu genien. Horretarako, ERAGIN trebakuntza programak emandako galde-sorta erabili genuen klasean.

Ondoko tauletan proiektuan inplikaturako irakasgai bakoitzarentzat lortutako erantzunak agertzen dira.

2. taula
Balorazio globala. PPE irakasgaia

Erabilitako metodologia berria kontuan izanda nolakoa da esperientziaren zure BALORAZIO GLOBALA?	Batere ona	Ez oso ona	Ona	Oso ona
		6(%12)	37(%74)	7(%14)
Metodologia berriak metodologia tradizionalekin alderatuz zein neurritan LAGUNDU DIZU IKASTEN?	Gutxiago	Berdin	Gehiago	Askoz gehiago
		4(%8)	40(%80)	5(%10)
Prozesuan zehar irakasleak EMANDAKO ORIENTAZIOA zure beharrak bete ditu?	Gutxi	Nahiko	Dezente	Asko
	1(%2)	15(%30)	33(%66)	1(%2)
Datorren ikasturte, modulu edo lauhilekoan aukeratu ahal izango bazenu, metodologia hau AUKERATUKO ZENUKE?	EZ		BAI	
	5(10%)		45(90%)	

3. taula
Gaitasunak. PPE irakasgaia

Metodologia honek zein neurritan LAGUNDU DIZU ONDOKOAK LORTZEN:				
	Oso gutxi	Gutxi	Dezente	Asko
Eduki teorikoak ulertzen		8(%16)	35(%70)	7(%14)
Teoria eta praktikaren arteko erlazioa ulertzen		2(%4)	27(%54)	21(%42)
Irakasgaiaren edukiak lotzen eta ikuspegi integratu bat eskuratzen		9(%18)	34(%68)	7(%14)
Irakasgaiarekiko interes eta motibazioa handitzen		12(%24)	24(%48)	14(%28)
Praktika profesionalaren egoerak aztertzen		10(%20)	27(%54)	13(%26)
Planteatutako lanaren inguruan zure kabuz ikertzen	2(%4)	7(%14)	22(%44)	18(%36)
Egoera erreal baten inguruan erabakiak hartzen	7(%14)	5(%10)	29(%58)	9(%18)
Egoera errealean aurrean arazoak konpontzen edo soluzioak eskaintzen	2(%4)	7(%14)	30(%60)	9(%18)
Zure komunikazio gaitasunak garatzen (ahoz edo idatziz)	1(%2)	12(%24)	29(%58)	8(%16)
Ikasteko zure autonomia garatzen	1(%2)	7(%14)	25(%50)	17(%34)
Zure ikaskuntzaren aurrean jarrera parte-hartzailea izaten	1(%2)	4(%8)	26(%52)	19(%38)
Zure talde lanerako gaitasunak hobetzen	1(%2)	2(%4)	23(%46)	24(%48)
Praktika profesionalean beharrezkoak diren gaitasunak garatzen	2(%4)	16(%32)	25(%50)	7(%14)
Jarraitutako ebaluazio sistema metodologia kontuan izanda egokia da	1(%2)	7(%14)	28(%56)	14(%28)

4. taula
Balorazio globala. MB irakasgaia

Erabilitako metodologia berria kontuan izanda nolakoa da esperientziaren zure BALORAZIO GLOBALA?	Batere ona	Ez oso ona	Ona	Oso ona
		5(%7)	52(%69)	18(%24)
Metodologia berriak metodologia tradizionalekin alderatuz zein neurritan LAGUNDU DIZU IKASTEN?	Gutxiago	Berdin	Gehiago	Askoz gehiago
	7(%9)	9(%12)	42(%56)	14(%19)
Prozesuan zehar irakasleak EMANDAKO ORIENTAZIOA zure beharrak bete ditu?	Gutxi	Nahiko	Dezente	Asko
		13(%17)	44(%59)	18(%24)
Datorren ikasturte, modulu edo lauhilekoan aukeratu ahal izango bazenu, metodologia hau AUKERATUKO ZENUKE?	EZ		BAI	
	6(%8)		69(%92)	

5. taula
Gaitasunak. MB irakasgaia

Metodologia honek zein neurritan LAGUNDU DIZU ONDOKOAK LORTZEN:				
	Oso gutxi	Gutxi	Dezente	Asko
Eduki teorikoak ulertzen	1(%1)	3(%4)	53(%71)	17(%23)
Teoria eta praktikaren arteko erlazioa ulertzen		1(%1)	41(%55)	33(%44)
Irakasgaiaren edukiak lotzen eta ikuspegi integratu bat eskuratzen		9(%12)	38(%51)	27(%36)
Irakasgaiarekiko interes eta motibazioa handitzen		12(%16)	40(%53)	22(%29)
Praktika profesionalaren egoerak aztertzen		10(%13)	42(%56)	23(%31)
Planteatutako lanaren inguruan zure kabuz ikertzen	1(%1)	11(%15)	26(%35)	37(%49)

Metodologia honek zein neurritan LAGUNDU DIZU ONDOKOAK LORTZEN:


	Oso gutxi	Gutxi	Dezente	Asko
Egoera erreal baten inguruan erabakiak hartzen	2(%3)	6(%8)	39(%52)	28(%37)
Egoera errealean aurrean arazoak konpontzen edo soluzioak eskaintzen	2(%3)	15(%20)	39(%52)	19(%25)
Zure komunikazio gaitasunak garatzen (ahoz edo idatziz)	2(%3)	11(%15)	41(%55)	21(%28)
Ikasteko zure autonomia garatzen		9(%12)	44(%59)	22(%29)
Zure ikaskuntzaren aurrean jarrera parte-hartzailea izaten	1(%1)	9(%12)	33(%44)	32(%43)
Zure talde lanerako gaitasunak hobetzen	1(%1)	2(%3)	35(%47)	37(%49)
Praktika profesionalean beharrezkoak diren gaitasunak garatzen	1(%1)	14(%19)	30(%40)	30(%40)
Jarraitutako ebaluazio sistema metodologia kontuan izanda egokia da	1(%1)	7(%9)	39(%52)	28(%37)

Orokorrean, inkestean bidez jasotako informazioak proiektuaren garapenean zehar kualitatiboki hauteman genuen sententzia berresten duela ikus daiteke. Metodologia berriak oso onarpen ona izan zuen ikasleen artean, bai PPE irakasgaietan, bai MB irakasgaietan.

Ikasleek oso balorazio positiboa egin zuten aurkeztutako ikaskuntza eredu berriaren inguruan eta gehienek hurrengo ikasturterako aukeratu ahal izango balute ikasteko modu berria aukeratuko luketela adierazi zuten. Horrez gain, gehiengoaren iritziz metodologia berriak metodologia tradizionalak baino gehiago laguntzen du ikasten eta orokorrean irakasleek emandako orientazioarekin nahiko pozik zeudela esan zuten.


Gaitasun zehatzei dagokienez, ikasleek esandakoaren arabera, metodologia berriak, besteak beste, teoria eta praktikaren arteko erlazioa ikusten, irakasgaietan eduki integratu bat eskuratzen, ikasteko autonomia garatzen edo talde lanerako gaitasunak hobetzen laguntzen duela esan daiteke.

Jarraian aurkeztu ditugun grafikoek adierazgarrienak iruditu zaizkigun aspektuei buruzko laburpena eskaintzen dute.



1. grafikoa
Metodologiaren balorazio globala

Erabilitako metodologia berria kontuan izanda nolakoa da esperientziaren zure **BALORAZIO GLOBALA?**



2. grafikoa
Metodologia berriak ikasten laguntzen du

Metodologia berriak metodologia tradizionalekin alderatuz zein neurritan **LAGUNDU DIZU IKASTEN?**



3. grafikoa
Datorren ikasturterako metodologia aukeratu

Datorren ikasturte, modulu edo lauhilekoan aukeratu ahal izango bazenu, **metodologia hau AUKERATUKO ZENUKE?**

Oro har, ikasleek ikaskuntza eredu berriari buruz adierazi zuten iritzia oso positiboa izan zen. Jasotako informazio guztia kontuan izanda, lan metodologia berria ikasleen motibazioa handitzeko aproposa dela esan daiteke. Horrez gain, planteatutako ereduak ikasleei autonomia handiagoa eta diziplina anitzeko ikaskuntza sakonagoa eta aplikatua eskaintzen diela uste dugu.

Hala ere, galdetutako aspektu guztiek balorazio oso positiboa jaso zuten arren, etorkizunean hobetzeko helburuz, merezi du aipatzea praktika profesionalarekin lotutako zenbait galderetan ikasleek balorazio zerbait baxuagoa egin zutela. Zehazki, egoera errealean aurrean arazoak konpontzeko eta praktika profesionalean beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko metodologia berriak duen baliagarritasunaren inguruan ikasleek puntuazio baxuagoak eman zituzten. Ondorioz, datozen ikasturteetarako, aproposa iruditzen zaigu enpresa munduarekin edo marketin graduatuen praktika profesionalarekin lotutako jarduera gehiago gehitzea planteatutako ereduari.

ONDORIOAK

Artikulu honetan Marketineko graduan inplementatutako eta ikaskuntza aktiboan oinarritutako eredu baten ezaugarri nagusiak aurkeztu ditugu. Eredu honek enpresa proiektu beraren inguruan irakasgai ezberdinen edukiak modu bateratuan antolatzeko aukera eskaintzen du. Sistema honen azalpenaren bitartez irakaskuntza-ikaskuntza teknika berriek sortzen dituzten hainbat onura, hala nola, ikaskuntza autonomoagoa edo ikasteko motibazio handiagoa, agerian jartzen saiatu gara. Ereduaren diseinu eta inplementazio prozesu osoaren aurkezpenak marketin arloko beste irakasle taldeak metodologia aktiboak erabiltzera anima ditzake, honela, ikaskuntza enpresa errealitatera hurbilduz.

Aurkeztutako eredu berriaren bertute nagusietako bat erlazonaturik dauden ikasgaien edukiak konektatzeko ahalmena da. Erabilitako sistemari esker, ikasleek marketineko politika ezberdinekin loturiko erabakiak garatu dituzte hauen artean egon behar duen koherentzia kontuan izanda. Honela, eredu berriak ikaskuntza testuinguru erreal eta diziplina anitzeko batean kokatzea lortzen du, marketin erabaki ezberdinen arteko koherentziaren garrantzia modu aplikatuan nabarmenduz eta marketin funtzioaren ikuspegi zabalago bat eskainiz.

Zentzu honetan, komenigarria izango litzateke, etorkizunean, marketin arloko irakasgai kopuru handiago bat, hala nola, komunikazio politikarekin edo merkataritza ikerkuntzarekin loturikoak, barneratzen dituen irakaskuntza-ikaskuntza eredu zabalago bat egituratzea, titulazioaren ikasgai ezber-

dinen ikuspuntu integratu bat erraztuz horrela. Eredu mota hauek ikasleek praktika profesionalean aurkituko dituzten antzeko egoerei aurre egiteko eta diziplina anitzeko ikaskuntza eraikitzaile bat garatzeko aukera ematen dutela uste dugu.

Azkenik, testuinguru zabalago batean, funtsezkoa iruditzen zaigu hezkuntza unibertsitarioaren esparruan irakaskuntza-ikaskuntza ikuspegi berri hau sendotzea, bereziki, enpresa errealitateak eta ingurune sozialak zeharo baldintzatutako marketina bezalako jakintza arloetan.

Jasotze-data: 2016/08/08

Onartze-data: 2016/11/08

Abstract

Active learning makes it possible to develop the content of several marketing subjects through work on the same project and places the learning process in a real context. This article presents the design and implementation of an active learning model. The model ensures that students develop the content and skills envisaged in different marketing subjects in a coordinated manner and take a multidisciplinary approach to problem-solving. On the one hand, we present the planning process of the subjects involved in the new active learning model. On the other hand, we also explain the implementation process, taking into account the most significant results and the students' perceptions. In conclusion, we underscore this model's capacity to integrate the content of different marketing subjects and develop a global perspective on marketing.

Keywords: *Active learning, Multidisciplinary learning, Higher education, Marketing area.*

El aprendizaje activo sitúa el proceso de aprendizaje en un contexto real y permite desarrollar los contenidos de distintas asignaturas de marketing en torno a un mismo proyecto. En este artículo presentamos el diseño e implementación de un modelo de aprendizaje activo. Mediante este modelo el alumnado desarrolla de manera coordinada los contenidos y habilidades de distintas asignaturas de marketing y afronta problemas de carácter multidisciplinar. Por un lado, presentamos el proceso de planificación de las asignaturas implicadas en el proyecto. Por otro lado, exponemos el proceso de implementación del modelo planteando los resultados más significativos así como las percepciones del alumnado. Como conclusión, subrayamos la capacidad

de este modelo para la integración de los contenidos de las distintas asignaturas del área de marketing y para la adquisición de una perspectiva global de la función de marketing.

Palabras clave: Aprendizaje activo, Aprendizaje multidisciplinar, Educación superior, Área de marketing.

L'apprentissage actif met le processus d'apprentissage dans un contexte réel et permet l'élaboration du contenu des différents sujets de la commercialisation dans un même projet. Ce document présente la conception et la mise en œuvre d'un modèle d'apprentissage actif. En utilisant ce modèle, les élèves développent, de manière associée, le contenu et les compétences dans différentes disciplines de marketing. A la fois, il permet envisager des problèmes multidisciplinaires. D'une part, nous présentons le processus de planification des sujets impliqués dans le projet. D'autre part, nous dévoilons le modèle de processus et mise en œuvre qui envisage les résultats les plus importants, ainsi que les perceptions des élèves. En conclusion, nous soulignons la capacité de ce modèle pour l'intégration du contenu des différents sujets dans le domaine du marketing et de la prise d'une perspective globale de la fonction marketing.

Mots-clé: Apprentissage actif, Apprentissage multidisciplinaire, Enseignement supérieur, Marketing.

ERREFERENTZIAK

- Aliri, J., Lertxundi, N., Gorostiaga, A., Vozmediano, L. eta Vergara, A. I. (2016). Problemetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) unibertsitatean: bere aplikazioa ikerketa metodologiako irakasgai batean. *Tantak*, 28(1), 87-101.
- Apodaca, P. (2006). *Estudio y trabajo en grupo: el aprendizaje cooperativo*. In M. de Miguel (zuz.), *Metodologías de enseñanza y aprendizaje para el desarrollo de competencias*. Madrid: Alianza.
- Benito, A. eta Cruz, B. (2005). *Nuevas claves para la docencia universitaria en el Espacio Europeo de Educación Superior*. Madrid: Narcea.
- Blanke, S. M. eta Odriozola, J. G. (2010). *Simuladores: herramienta de apoyo para el aprendizaje del marketing*. XXIV Encuentro de Docentes Universitarios de Comercialización de Argentina y América Latina (Educa-AL). Tandil, Argentina.
- Camarero, C., Rodríguez, J. eta San José, R. (2007). *Casos reales y proyectos viables como alternativas del aprendizaje basado en la experiencia*. XIX Encuentro de profesores universitarios de marketing. Vigo, España.

- Díaz-Véliz, G., Mora, S., Bianchi, R., Gargiulo, P. A., Terán, C., Gorena, D., La-fuente Sánchez, J. V. eta Escanero Marcen, J. F. (2011). Percepción de los estu-diantes de medicina del ambiente educativo en una facultad con currículo tradicional (UCH-Chile) y otra con currículo basado en problemas (UNC-Ar-gentina). *Educación Médica*, 14(1), 27-34.
- Fernández-March, A. (2006). Metodologías activas para la formación de compe-tencias. *Educatio siglo XXI*, 24, 35-56.
- González-Gascón, E., De Juan, M. D., Parra, J. F., Sarabia, F. J. eta Kanther, A. (2010). Aprendizaje auto-regulado: antecedentes y aplicación a la docencia universitaria de marketing. *Revista de Investigación Educativa*, 28(1), 171-194.
- Kagan, S. (1994). *Cooperative Learning*. San Clemente, CA: Kagan Publishing.
- Madinabeitia, A. eta Fernandez-Fernandez I. (2015). Iraupen luzeko irakasleriaren garapenaren eraginkortasuna: irakasleriaren kontzepzioetan, hurbilketan eta kultura instituzionalean. *Tantak*, 27(1), 35-63.
- Panitz, T. (2004). The case for student centered instruction via collaborative lear-ning paradigms. *The Journal of Student Centered Learning*, 2(1), 6-8.
- Prieto, L. (2007). *El aprendizaje cooperativo*. Madrid: PPC.
- Roger, T. eta Johnson, D. W. (1994). *An Overview of cooperative learning*. In J. Thousand, A. Villa eta A. Nevin (ed.), *Creativity and Collaborative Lear-ning*. Baltimore, MD: Brookes Press.
- Sevillano, F. (2011). *Mejora del aprendizaje orientado a proyectos con alumnos de políticas de marketing mediante el fomento de la creatividad*. III Congreso Internacional UNIVEST. La autogestión del aprendizaje. Girona, España.
- Tena, M. (2010). Aprendizaje de la Competencia Creatividad e Innovación en el marco de una titulación adaptada al Espacio Europeo de Educación Superior. *Formación Universitaria*, 3(2), 11-20.
- Vidic, A. D. (2010). *The Impact of Problem-Based Learning on Statistical Thin-king of Engineering and Technical High School Students*. 8th International Conference on Teaching Statistics. Ljubljana, Eslovenia.
- Zabalondo, B., Fernandez-Guerra, V., Alonso, E. eta Pagadigorria, A. (2016). Ikus-entzunezko teknikak (ist) irakastea: etorkizuneko ikus-entzunezkoetako profesionalen hezibidea. *Tantak*, 28(1), 9-29.